


Zumaia-Elorriaga-Deba



San Telmo baseliza,
Marianion Puntako
labarrarekin


GR 121aren zati hori bere balio geologikoengatik nabarmendzen da. Bere labarrak fenomeno berezi baten gainean daude, marearteko zabalgunearen gainean. "Marearteko zabalgune" edo "urradura plataforma" hori kostako lerroan olatuek labarretan era gindako erosioak sortutako azalera txikia da. Itsasbeherarekin marearteko zabalgunea azalerara ateratzen da bere biodibertsitate aberatsarekin.

Marearteko zabalgunearen gainean altxaizen dira Zumaiako labarrak. Sakonea eta Mendatako guneean aurki daitezke malkartsuenak. Elorriagan Itziarrera iristen den PR batekin bat egiten du ondoren Debara jaisteko. Bi ibilbideek bat egiten dute Sakonetaraino eta bertan Elorriagarantz abiatzen da.



Hondaritzako Punta eta Itsasbeherarekin ikus daitekeen marearteko zabalgunea

Zumaiako labarrek "flysch" izen teknikoa hartzen dute. Geruzen sekuentziak dira, milorriizgarribaten moduan, non material gogorreko geruzak (kalizak eta harenharriak) material bigunekoekin (tuparrak) eta harri buztintsuak tartekoizten diren. Kretazeoan zeharreko lur-mugimenduek jatorrian horizontalak ziren geruza horiek antolamendu bertikala hartzearagin zuten. "Flysch"aren orriak itsasoan sartzen dira interes geologikoa izateaz gain oso ederra den saihesgia bezala.



Sakonetako inguru

Labar malkartsuak

Zumaia Talaimendi eta Amesmendi hegalen artean dago, Urola ibaiaren bokalean. Mendaia, ibaia eta itsasoa bateratzen dira herri honen paisaian; bere arkitektura ere oso bestelakoa da barnekaldeko herriekin alderatuz gero. Bere ateetako ezkutu herrikoak edo ateburuak apaintzen dituzten motiboei erreparratu behar zaie. Zumaia ikertatik pasatzen zen Santiago Bideko ibilbideetariko baten arrastoak gordetzen ditu, Irundik zetorren eta Kantauriko kosta zeharkatzen zuen Kostako Bidearen arrastoak.

